



PRESIDENTEA:

Gentza Alamillo Udaeta jn.

**AIARAKO UDALAK 2018ko ABENDUAREN 19an  
EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.**

ZINEGOTZIAK:

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera  
jn.

Montserrat Angulo Solloa and.

Susana Martín Benavides and.

Lauren Uria Peña jn.

Nerea Goti Valle and.

Esteban Hernando Landa jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Iraida Saenz de Lafuente and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko abenduaren hemeretziaren, hemeretziak direnean, Udalbatza osoa bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M<sup>a</sup> Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

EZ DA BERTARATU:

Josu Artetxe Arana jn.

IDAZKARIA:

M<sup>a</sup> Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak Osoko Bilkurara ongiatorria eman die denei, eta besterik aipatu gabe **EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2018ko abenduaren 29an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) hitz egin du, eta bi ohar egin ditu:

- Azaroaren 25eko (“Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna”) adierazpen instituzionalari buruzko puntuari dagokionez, adierazi du nahiz eta jasotzen den EH-BILDU talde politikoak ekarpen batzuk egiten dizkiola Eudelen testuari, ez da zehazten zein diren ekarpen horiek, eta EH-BILDU taldeak Informazio Batzordeari emandako agiriaren arabera, hauek dira:

“Komunikabideek, publizitateak, telebistak, hezkuntza-ereduak, emakumeen ordezkartzarik ezak edo genero-rol eta –estereotipoei eusteak, eta emakumeak menperatzen dituzten usteek, praktikek eta jarrerak, besteak beste, bidegabea izateaz gain emakumeak bizitzako esparru guztietan, bai publikoak eta bai pribatuak, gutxiagotasun-posizio batean kokatzen dituen gizarte-ordena bati laguntzen diote. Ordena sozial, ekonomiko eta sinboliko horrek indarkeria matxista erabiltzen du, bere adierazpide guztietan, emakumeak azpiratzeko eta genero patriarkalaren aginduaren menpe jartzeko.

Gure ardura da arreta jartzea emakumeek egunero jasaten dituzten indarkeria matxistaren adierazpideetan, intentsitate baxukoak esaten zaienak, desegoki, gizartean onartuta eta oso normalizatuta daude, eta indarkeria-mota bortitzagoak zilegitzen eta errazten dituzte. Besteak beste, musikak, publizitateak eta komunikabideek zabaltzen duten indarkeria sinbolikoa, indarkeria psikologikoa, ez soilik hitzekoa, baizik eta tratu txarren,

umiliazioaren, emakumeen bizitzaren eta gorputzen kontrolaren edo indarkeria ekonomikoaren bidez eginikoa ere, emakumeen soldata okerragoetan edo lan-baldintza prekarioagoetan ikus daitekeen moduan.

Urtero bezala, ez ditzagun ahatz, orain arte aurten hil dituzten emakume guztiak gogoratu nahi ditugu:

- Florentina Jiménez, Gasteizen hil zuten.
- María José Bejarano, Florentinaren alaba, Gasteizen hil zuten.
- Roxana, Donibane Garazin hil zuten.
- Réjene, Bidarten hil zuten..
- Sophie Lösche, Asparreanean hil zuten.
- Natalia Bally, Uhartan hil zuten.
- Maguette Mbeugou, Bilbon hil zuten.
- Yolanda Jaén Gómez, Iruñean hil zuten.

Atal xedatzailea:

- Udal honek bere egiten du Emakumeen Mundu Martxak bultzatutako indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa.
  - Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen dio handitzeko emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko aurrekontu-partidak, berdintasun-zuzendaritzak indartzeko eta epaitegiko genero-unitateak, modu iraunkorren, eta konpromisoa hartzeko indarreko legeria berrikusteko.
  - Udal honek ahalduentze-jarduerak egingo ditu neskatoentzat, neska gazteentzat eta emakume helduentzat, bikote harremanak eta harreman sexu-afektiboak, maitasun erromantikoa, sexualitate askeak, autodefentsa feminista eta abar.
  - Udalak, berriz ere, bere konpromisoa baieztatzen du borroka feministarekin, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeko tresna eta bide nagusitzat, eta gure udalerrian eta Aiaraldeko herrietan mugimendu feministak deitutako mobilizazioetara joateko deia egiten du.
- Galde-eskeen txandan, adierazten denean Batzordeak egiteko eguna, ezinbesteko kasurik ezean, arazotsua dela zinegotzi guztientzat, garaiz egokitzeko libre egon ahal izatea, adierazi nahi du ez daukala ezer funtzionarioak prestatzearen inguruan, funtsezkotzat jotzen baitu, baina kritikatzin du alde aurreko tarte gutxirekin abisatu zizkietela aldaketak.

Hitzartzeak bukatuta, akta hori onestea erabaki da, aho batez,.

**2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday ongintzako fundazioaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmena, Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko 2018an-** Jarraian, Udalbatzari Aiarako Udalaren eta Alday Fundazioaren artean 2018an Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko sinatzeko Hitzarmen-proposamenaren berri eman zaio. Aldez aurretik, 2018ko abenduaren 11n egindako bilkuran, Gizartea eta Osasuna, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak aldeko txostena eman zuen.

**AIARAKO UDALAREN ETA ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN PROPOSAMENA, ARESPALDITZA HERRIAN EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA KUDEATZEKO ETA MANTENTZEKO.**

Arespalditzan, 2018ko .....aren ....(e)(a)n.

### **BILDU DIRA:**

Alde batetik, ..... Jauna, AIARAKO Udaleko (Araba) alkate-udalburu denez gero, hitzarmen hau sinatzeko ahalarekin, 2018ko .....aren .....(e)(a)n egindako ohiko osoko bilkuran emana.

Beste aldetik, ....., presidente denez gero, ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAREN izenean eta haren ordez, Hitzarmen hau sinatzeko ahalarekin.

Nire aurrean, ....., AIARAKO Udal Txit Goreneko idazkari naizenez gero, honen fede ematen dut.

Bi aldeek, beren karguei zor zaizkien ahalmenei eta eskumenei jarraikiz, elkarri aitortzen diote agiri hau sinatzeko gaitasuna, eta

## **ADIERAZTEN DUTE**

**Lehena** - ALDAY ONGINTZAKO FUNDAZIOAK laguntza-funtzioa betetzen duela adinekoak zaintzen, Arespalditzako instalazioetan.

2009tik Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua ere bere gain hartzen du.

**Bigarrena** – Zerbitzua jarraitzeko, hitzarmen hau egin dute, hauei jarraikiz:

## **KLAUSULAK**

**Lehena** – Agiri honen xedea da, alde batetik, Alday ongintzako fundazioak Arespalditzako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamenduan bere gain hartzen dituen konpromisoak ezartzea. Guztira 14 toki ditu batera erabiltzeko, eta horietako 10 Arabako Foru Aldundiak itundutakoak dira. Era berean, Udalak ordaindu beharrekoa zehaztea, lan hori Alday ongintzako fundazioak betetzeagatik.

**Bigarrena.**- Alday ongintzako fundazioak konpromisoa hartzen du zentroa eta han egiten diren jarduerak kudeatzeko, agiri honi eranskin moduan atxiki zaion gehigarriari jarraikiz. Bertan jasotzen dira preskripzio teknikoak edo zerbitzua emateko araudia eta zentroaren funtzionamendubaldintzak, baita pertsonak onartzeko protokoloa ere. Halere, indarreko arau-esparruaren barruan egingo da hori, Arabako Foru Aldundi Txit Gorenaren Gizarte Zerbitzuen Sailak adinekoentzako titulartasun publikoko gizarte-zerbitzuak kudeatzeko ezarritako informazio-oinarrien eta helburuen arabera.

**Hirugarrena** – Alday ongintzako fundazioak Eguneko Arretarako Landa Zentroa adinekoentzako aisia-jarduerak egiteko eta eguneroko jarduerak egiten laguntzeko baliatuko du. Era berean, Zentroan obrarik ez egiteko konpromisoa hartzen du, eta instalazioak, ezta haien zati batzuk ere, hitzartutakoaz besteko erabileretarako ez baliatzeko konpromisoa hartzen du, alde aurretik Aiarako Udalak onesten ez badu behintzat.

**Laugarrena** – Alday ongintzako fundazioak konpromisoa hartzen du, hitzarmenak iraun bitartean, beharrezko langileak jartzeko, artatutako pertsona-kopuruaren, haien profilaren eta emandako zerbitzuen arabera, Eguneko Arretarako Landa Zentroak ondo funtziona dezan eta haren kudeaketa ekonomikoa garatzeko.

**Bosgarrena.**- abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, bere printzipio orokorren barruan, erantzukizun publikokoa jartzen du, eta adierazten du botere publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Zerbitzu eta Prestazioen katalogoan araututako prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea eta eskuragarritasuna ziurtatuko dutela. Gainera, zioen azalpenean, baieztatzen du gizarte-zerbitzuek beren jarduna egokitu behar dutela gizon-emakumeen berdintasunerantz apurka aurreratzeko gizarte-aldaketekin lotuta, emakumeak gizarte-inklusiora lagunduko dituzten jarduketak eta zerbitzuak bultzatuz. Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela 3/2007 Lege Organikoan (martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa) eta 4/2005 Legean (otsailaren 18koa, EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, 2010ean onetsia) ezarritako xedapenak, eta konpromisoa hartzen dutela neurriak hartzeko genero-ikuspegia

sartzeko eta, bereziki, hizkuntza ez-sexista erabiltzeko, datuak sexuaren arabera banatuta biltzeko eta aurkezteko eta hitzarmen honen babespean egiten diren jardueretan sartzeko gizon-emakumeen berdintasuneko helburua.

Era berean, Alday ongintzako fundazioak konpromisoa hartzen du Aiarako Udalari jakinarazteko programak exekutatzeko sortutako edozein aldaketa, baita horretarako izendatutako langileen ingurukoa ere, Alday ongintzako fundazioak ematen duen laguntza-zerbitzuari eragiten badio. Alday ongintzako fundazioak Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketaren eta funtzionamenduaren inguruan era justifikatua beharrezko diren agiriak aurkeztuko ditu. Edonola ere, hitzarmen hau edonola aldatzeko, bi aldeek aldez aurreko eta berariazko onespina lortu beharko da. Udalak Arabako Foru Aldundiarekin Eguneko Arretarako Zentroaren inguruan sinatutako hitzarmenean aldaketarik balego, Alday ongintzako fundazioari jakinaraziko zaio, beharrezko aldaketak egin ditzan, bi aldeak aldez aurretik ados jarri ondoren. Zerbitzuak genero-ikuspegia txertatuko du bere programazioan eta jarduketetan, eta, bereziki, hizkuntza ez-sexista erabiliko du, eta emakume eta gizonak duintasun- eta eskubide-berdintasunean aurkeztuko ditu, eta eguneroko jardueretan genero-rolen eta estereotipoen inguruko hausnarketa txertatuko du.

**Seigarrena.-** Aiarako Udala ez da izango, inola ere ez, hitzarmen hau gauzatzetik eratorritako edozein motatako lan-betebeharren erantzule. Alday ongintzako fundazioaren erantzukizuna izango da enplegatuen lan-harremanari eta lan-antolaketari lotutako guztia, eta, izatekotan, Alday ongintzako fundazioarekin lan-loturaren bat dutenena.

**Seigarrena** – Alday ongintzako fundazioak konpromisoa hartzen du hasieratik eta hitzarmen honen indarraldian bere zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean izateko, baita Aiarako Udalarekin beste diru-laguntza batzuk itzultzeagatik zergen ordainketa egunean eramateko ere. Era berean, adierazten du ez dagoela indarreko legerian aurreikusitako ezein debeku-egoeratan.

**Zortzigarrena.** Aiarako Udalak, udaleko lehen mailako gizarte zerbitzuaren bidez, aurkeztutako eskaerak bilduko ditu, eta dagokion administrazio-espeditatea izapidetuko du.

Eskaeren balorazioa eta pertsonen lehentasun-ordena zehaztea Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren barruko batzorde baten bidez egingo da, eta hauek hartuko dute parte: zuzendariordea, gizarte-koordinatzailea eta Gizarte Esku-hartze Saileko gizarte-langilea.

Pertsonak Gizarte Ongizateko Foru Institutuak egingo du, eta lehentasuna emango dio udalerrian bizi diren pertsonak hartzeari. Hau da, ohiz kanpoko inguruabarrak ezean, puntuazio berdineko kasuetan, Aiarako udalerrian bizi diren pertsonen emango zaie zentroan sartzeko lehentasuna. Horiek Gizarte Ongizateko Foru Institutuari unean-unean indarrean dagoen prezio publikoen araudi erregulatuarekin bat etorritako prezio publikoa ordaindu beharko diote; horretarako, dagokion ebazpena bidaliko da.

**Bederatzigarrena:** Erabiltzaileak Eguneko Arretarako Landa Zentrora eramateko garraioa ez da hitzarmen honen xedea, Alday fundazioarekin eta Udalarekin zerikusirik ez duen beste erakunde batek kudeatzen baitu zerbitzu hori.

**Hamargarrena.-** Zenbatetsi da hitzarmenaren indarraldirako zentroaren kudeaketa eta funtzionamenduari dagokion gastuaren aurrekontua 2018rako udal-aurrekontuan hasieran ezarritako 60.000,00 euroak gehi eratorritako gehikuntzak aplikatzearen ondorioz Alday fundazioari ordaindu beharreko likidazioaren kopurua izango dela.

Aiarako Udalak konpromisoa hartzen du aipatutako aurrekontu-partida behar beste handitzeko Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko gastu handiagoa egin ahal izateko, betiere Alday fundazioak behar bezala justifikatzen badu, zerbitzua egoki emateari eragiten dioten aurreikusi ezin diren inguruabarren ondorioz, eta Aiarako Udalaren gizarte-laguntzailearen onespenearekin.

**Hamaikagarrena.-** 2018ari dagokion kontraprestazioaren ordainketa Alday ongintzako fundazioak Udalean gastu guztien ordainagiriak aurkezten dituen egingo da, datu guztiekin eta legez ezarritako betekizun guztiekin (hornitzailearen izena eta IFZ, Alday fundazioaren izena eta IFZ, fakturaren zenbakia eta data, prestazioaren helburua, xehatutako kopurua eta BEZa), eta langileen kostuari dagozkion ziurtagiriak, hilabete bakoitza bukatzean; beraz, ordainketak hilero egingo dira.

Jarraian zerrendatutako gastuetarako, honako kontzeptu eta/edo kopuru hauek inputatu beharko dira, aurkeztutako justifikazioa baliozkotzat jo dadin:

- Elikadura-kostua: Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen sukaldariaren soldaten eta gizarte-aseguruen % 20ko kostua inputatuko da, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Zentroko zerbitzuetan aritzen diren langileak baitira. Era berean, elikagaien kostua justifikatzeko, 5,55 €-ko kopurua inputatuko da menu bakoitzeko, bai erabiltzaileena, baita zerbitzua ematen duen gerokultorearena ere, hilabetean zerbitzua ematen duen egunetan.

- Gestoriaren kostua: Alday fundazioak gestoriaren kontzeptuan duen gastuaren % 15 inputatuko da; izan ere fundazioak ematen duen Egoitza zerbitzuarekin partekatutako gastu bat da.

- Garbiketa-kostua: Hilero, 34,58 € inputatuko da, garbiketa-kontzeptuan; izan ere, Alday fundazioaren beraren bitartekoeekin egiten da, eta fundazioak ematen duen egoitza-zerbitzuarekin partekatutako zerbitzua da.

- Erantzukizun zibileko aseguruia. Erabiltzaile kopuruari gehi gerokultoreari dagokion zati proportzionala inputatuko da, Alday fundazioak kudeatzen dituen bi zerbitzuen kopuru osotik (Egoitza + Eguneko Zentroa), bi zerbitzuek partekatzen duten kostua baita.

- Animatzaile soziokulturalaren/ gizarte-langilearen kostua: Hilero 160,00 € inputatuko da, Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen animatzaile soziokulturalaren/gizarte-langilearen soldaten eta gizarte-aseguruen % 8,66, irailtik hasita, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Zentroko zerbitzuetan aritzen diren langileak baitira.

- Zuzendariaren agiriaren kudeaketaren kostua: Hilero 355,00 € inputatuko da, Alday fundazioak kudeatutako egoitzan zerbitzuak ematen dituen zuzendariaren soldaten eta gizarte-aseguruen % 12,5, irailtik hasita, zerbitzu hori fundazioak emateko ardura hartu baitu, Egoitzako eta Eguneko Arretarako Zentroko zerbitzuetan aritzen diren langileak baitira.

- Usufruktua: AFaren balioespenaren arabera (210.650,92 €-ren % 2; urtean 4.213,02 euro, eta hilean 351,09 €); horietatik 3.370,42 € Aldundiak ordainduko ditu, eta Udalak 842,60 €.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (Aiarako Udaleko Gizarte Langileak) Alday ongintzako fundazioak aurkeztutako agiriaren aldeko txostena igorri ondoren.

Txostena ez bada aldekoa, uste delako ez direla nahikoa justifikatu egindako ordainketa guztiak, gizarte-langileak adierazi beharko du zein kontzeptuk behar duten Alday ongintzako fundazioak egiaztatzea, partida zehatz horretan, idatzi beharreko txostenaren barruan.

**Hamabigarrena.-** Hitzarmenaren indarraldia amaitzean, eta luzapen bakoitzean, edonola ere hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 10a baino lehen, Alday ongintzako fundazioak hau aurkeztu beharko du:

- Egindako ekintzen azalpen-memoria, egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta haien ebaluazioa adieraziz, espezifikoki jasota emakume eta gizonen berdintasunerako egindako ekintzak, eta sexuka banatutako datuak aurkeztuz. Jasotakoan, Aiara Udaleko gizarte-langileak berrikusi egingo du, eta hurrengo ekitaldirako jarraibideak ezarriko ditu.

- Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, gastuen eta diru-sarrerren zerrenda xehatuarekin.
- Hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako diru-laguntza guztien adierazpenak, bai erakunde pribatu eta bai publikoetatik jasotakoak. Inprimakia atxiki da, betetzeko.
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiria, edo elkartearen presidentek sinatutako baimena, Udalak erakunde horiei eska diezazkien aipatutako ziurtagiri horiek.
- Zentroko langileen soldata-kostuei dagokien agiriak (gerokultorea, sukaldaria, zuzendaria eta animatzailea/gizarte-langilea): TC-1 eta TC-2ren kopia, dagokion ekitaldian langileei ordaindutako nominen kopia.

**Hamahirugarrena.-** Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailak eta Aiarako Udalak zentroa erabili ahal izango dute jarduerak egiteko, aldeztatik Alday ongintzako fundazioari jakinarazten badiote. Hauek ezingo diote uko egin, eskatutako erabilera instalazioetan egiten duten lanarekin bateragarria ez bada behintzat, bai Eguneko Arretarako Landa Zentroan eta bai alboko Zaharren Egoitzan.

**Hamalauugarrena** – Alday ongintzako fundazioaren erantzukizun izango dira hitzarmen hau gauzatzearen betebeharrak betetzetik zuzenean edo zeharka eratorritako gorabeherak, edozein motatakoak direla ere, betiere bere kudeaketari edo funtzionamenduari egozteko moduko jarduerengatik bada. Inola ere ez da erantzungo ezinbesteko kasuetan, ustekabekoetan edo hirugarrenek egindakoetan; horretarako, ez ditu bere gain hartuko egunero pertsonak garraiatzean sor daitezkeen kalteak, horretarako dagoen garraioan, beste erakunde batek kudeatzen baitu zerbitzua.

Gorabehera horietako edozein ardura saihesteko, Alday ongintzako fundazioak konpromisoa eta betebeharra du aseguru-poliza bat sinatzeko eta ordaintzeko, hitzarmena gauzatzetik erator daitezkeen balizko erantzukizunak betetzeko; horretarako, hitzarmen hau sinatzerako, eta balizko luzapenerako, aipatutako poliza eta dagokion ordainagiria ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

**Hamabosgarrena.-** Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondoreak izango ditu 2018ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte. Aurrekoa gorabehera, eta zerbitzuak jarraitzeko aurreikuspenaren arabera, hitzarmena luzatu egingo da bukatzean, beharrezkoa izango balitz, ez dagoelako ebazpenik zerbitzua 2019rako ematearen inguruan, eta aipatutako erabakia hartu arte behar besteko denboran.

**Hamaseigarrena** – Bi aldeek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonala Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute hor aurreikusitako eskakizunak betetzeko, hitzarmen honetan tratatzen diren erabiltzaileengandik lortutako datuei dagokienez. Araudi horrek Alday ongintzako fundazioa, hitzarmen honen sinatzailea, eta Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren edo Aiarako Udalaren ardurapeko fitxategietako izaera pertsonaleko datuak tratatzen dituen bere langile guztiak behartzen ditu beharrezko segurtasun-neurriak aplikatzera datuek, une oro, beharrezko segurtasun-maila izan dezaten. Arau horiek betetzea, hitzarmenaren xedearen esparruari dagokionez, Alday ongintzako fundazioaren ardura izango da.

Bereziki, honako betebeharrak bete beharko ditu, aipatutako arauaren 12. artikuluari eta 15/1999 Lege Organikoa Garatzeko Araudiaren 20. artikuluari jarraikiz.

1. Ez aplikatzea dituen datu pertsonalak, eta ez ditu erabiltzea kontratu honen xedea osatzen duen programa emateko ez beste ezertarako.

2. Ez zaizkie datu horiek jakinaraziko, ezta kontserbatzeko bada ere, beste pertsona batzuei, fisikoei edo juridikoei, indarreko legeriak aurreikusitako kasuetan izan ezik.
3. Alday ongintzako elkartearen enplegatuek, Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren edo Aiarako Udalaren titulartasuneko fitxategietan jasotako izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen badute, haiek sekretupean izateko eta gordetzeko betebeharra dute, eta betebeharrak horiek iraun egingo dute, Alday ongintzako fundazioarekin daukaten harreman juridikoa bukatzen denean ere bai.
4. Segurtasun-agiri bat egingo du, edo daukana osatuko du, fitxategia edo tratamendua identifikatu beharko da, eta haren arduraduna, eta tratamendu horrekin lotutako segurtasun-neurriak sartu beharko ditu.

Datuetarako sarbidea urrutikoa bada, Aiarako Udalak berariaz debekatzen dio Alday ongintzako fundazioari datu horiek arduradunarenak ez diren beste sistema edo euskarri batzuetan sartzeari. Alday ongintzako fundazioak bere zerbitzura dauden langileei, kontratatutako zerbitzua gauzatzearen ardura dutenei, Gizarte Ongizateko Foru Institutuko segurtasun-araudia onartzearen konpromisoa sinaraziko die.

5. Beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzazkoak hartu beharko ditu izaera pertsonaleko datuen segurtasuna bermatzeko, eta haiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo baimenik gabe eskuratzeari eragozteko, kontuan hartuta teknologiaren egoera, biltegiatutako datuen izaera eta zein arrisku dituzten, giza ekintzatik edo bitarteko fisiko edo naturaletik etorrira ere. Bereziki, erakundeak abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren VIII. tituluan aurreikusitako neurriak bete beharko ditu (haren bidez onestean da 15/1999 Lege Organikoaren Garapen Araudia, aurrez aipatua), baita unean-unean gai horren inguruan indarrean dauden xedapenak ere.

Neurri horiek aipatutako Garapen Araudian ezarritako segurtasun-neurrien arabera zehaztuko dira. Kontuan hartu beharko da erabiltzaileen osasun-datuak tratatzeak babes-neurri handiagoak eskatzen dituela, eta gutxienez, araudi horretan jasotakoak aplikatu beharko dira.

6. Hitzarmen honen xede den prestazioa betetzean, erabiltzaileen datuak itzuli beharko dizkio Alday ongintzako fundazioak Aiarako Udalari, gehienez ere hogeita hamar egun naturaleko epean, eta inola ere ezingo du gorde fitxategi horien kopia osoa edo zatikakoa, edo horien ondorioz sortutakoak, agindutako lanen ondoriozkoak, edo tratatu den izaera pertsonaleko datuen bat daukan agiri edo euskarririk, indarreko legeriak xedatutakoaren arabera erakunde pribatuak gorde behar dituenak kenduta.
7. Horretarako, kontuan hartu beharko da segurtasun-neurriak berdin eta bereziki aplikatu beharko direla automatizatu gabeko euskarrietan dauden datuetan.
8. Alday ongintzako fundazioak, tratamenduaz arduratzen denak, izaera pertsonaleko datuak bestelako helburuetarako erabiltzen baditu, komunikatu egiten baditu edo kontratuaren estipulazioak hautsiz erabiltzen baditu, pertsonalki egin dituen arau-hausteei erantzunez joko da tratamenduaren erantzulez.
9. Alday ongintzako fundazioak agindutako zerbitzuak azpikontratatzeko badira, edo azpikontratatzeari aurreikusitako bada, Aiarako Udalaren alde aurreko jakinarazpena beharko du, osorik edo partzialki Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak azpikontratatzeko. Edonola ere, Alday ongintzako fundazioaren eta azpikontratatuaren artean egindako kontratuan hau islatu beharko da: datuak babesteko araudiak eskatutako betekizuna, eta berariaz jaso beharko dira aipatutako 12. artikuluko preskripzioak, azpikontratutako zerbitzuaren eduki

zehatza eta izaera pertsonaleko datuen tratamendua unean-unean Gizarte Ongizateko Foru Institutuak eta Aiarako Udalak ezarriko dituen argibideei doituko zaiela.

10. Aldeek beren eskubideak eskatuko balituzte Aiarako Udalean, arduradunak eskaera helarazi beharko dio fitxategiaren arduradunari, hark ebatz dezan.
11. Gizarte Ongizateko Foru institutuak eta Aiarako Udalak Alday ongintzako fundazioak egindako datu pertsonalen tratamenduak auditatu ahal izango ditu, gutxienez bi urteko maiztasunarekin, izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategiak tratatu eta kontserbatzeari dagokionez.
12. Alday ongintzako fundazioak konpromisoa hartzen du, honen bidez, fitxategiak edo egin beharreko tratamenduak izaera pertsonaleko datuak babesteko legeriari egokitzeko.
- 13.

**Hamazazpigarrena** – Hitzarmen hau baliogabetzeko kausa izango da bi aldeek adostea, funtsezko klausulak ez betetzea, hau da, Alday fundazioak gizarte-laguntza ez ematea edo gaizki ematea, edo Udalak ordaindu beharreko kopuruak bost hilabete baino gehiagoz ez ordaintzea.

**Hemezortzigarrena** Alday ongintzako fundazioak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede den programen publizitatean Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren eta Aiarako Udalaren elkarlana aintzat hartzeko. Aiarako Udalak zentroko arreta-zerbitzua iragartzen duenean, halaber, Alday ongintzako fundazioak egiten duen laguntza-lana adieraziko du, eta Arabako Foru Aldundiari eskatuko dio hark ere kontuan har dezala Aiararako egiten duen jarduera honen publizitatean.

Komunikazio-, publizitate- eta propaganda-ekintza guztiak, Hitzarmen honekin lotura badute, Arabako Foru Aldundiaren eta Aiarako Udalaren alde aurreko jakinarazpena beharko dute, eta bere irudi korporatiboarekin lotuta haiek ezarritako adierazpenei lotuko zaizkie; horrez gain, gizonen eta emakumeen hizkera inklusiboa erabili beharko dute, eta sexua gorabehera pertsonak giza duintasunean berdinak direla erakusten duten irudiak. Era berean, edozein ekitaldi publiko edo pribatu antolatzean (datak, ordutegiak, ekitaldiaren garapena, gonbidatuak, eta abar), aurkezpenak, sari-banaketak, itxierak eta antzekoak, deitu aurretik adostuko dira, eta Aiarako Udalaren eta Aldundiaren onespina eduki beharko dute. Edonola ere, ekitaldi horietako presidentetza eta presentzia Hitzarmen honen sinatzaileentzat gordeta dago, baita Arabako Foru Aldundiarentzat ere, eta AFAREN Protokolo eta Harreman Publikoen zerbitzuak arautuko du.

Azaldutako guztiarekin ados gaudela adierazteko, honako agiri honen bi kopia sinatzen ditugu, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

ALKATE-UDALBURUA,-  
Sin.

FUNDAZIOKO PRESIDENTEA,  
Sin.

IDAZKARIA  
Sin.:

"

Udalbatza jakinaren gainean dago eta, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Onestea Aiarako Udalaren eta Alday ongintzako fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena luzatzea, Arespalditza herrian Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko 2018ko ekitaldian.

2) Alkate jaunari eskumena ematea hitzarmena sinatzeko.



**3. Aiarako Udalak Euskal Fondoari 2018ko ekitaldian ekarpena egiteko proposamena,** Jarraian, udalbatzari EAJ-PNV udal-taldeak egindako akordio-proposamenaren berri eman zaio, Aiarako Udalak Euskal Fondoari diru-laguntza bat ematearen inguruan; honela dio:

**" ERABAKI-PROPOSAMENA**

Aiarako Udaleko Gobernu Lantaldeak proposatzen du Udal Aurrekontutik 1.568,55 €-ko diru-laguntza bat ematea 2018ko ekitaldirako, 231.481003 aurrekontu-aplikazioa, EUSKAL FONDOA erakundearekin lanean jarraitzeko egiten dituen proiektuetan, emandako agirien arabera.

AINTZAT HARTU DA azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legean, zuzenean emateko kasuen artean, arauaren 22.2.c) artikuluan hau ezartzen dela: “c) Salbuespen moduan, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen badira, edo deialdi publikoa zailtzen duten beste batzuk, behar bezala justifikatzen badira”

Beraz, proposamen hau salbuespenezkoa denez, ohiko prozeduraren lehiaren aurrean, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak justifikatzeko txosten bat behar da.

Kasu honetan, EUSKAL FONDOAREN interes publikoa, soziala eta humanitarioa egiaztatzen duen, eta beraz, deialdi publikoa zailtzen duen arrazoiak da Aiarako Udala bera elkarteko kide dela, oso sentsibilizatuta baitago erakundeak egiten duen jardunarekin.

Horregatik, Udalbatzak honako erabaki hau hartzea proposatu du::

**Lehenengoa.** EUSKAL FONDOARI 1.568,55 € euroko diru-laguntza ematea, 231.481003 aurrekontu-aplikazioaren kargura, “LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK”, proiektu honetarako:

- “Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketaren intzidentzia ikertzea eta gaitasunak garatzea”.

**Bigarrena.-** Laguntza hori ematean EUSKAL FONDOAK jakinarazten badigu proiektu hori bukatu duela, Aiarako Udalak proiektu honi laguntzea proposatzen du:

- “Edateko uraren eta saneamenduaren sistemak hobetzea Las Azucenas komunitatean. San Carlos”.

**Hirugarrena.-** Diru-laguntza jarduera justifikatzean emango da, 2019ko urtarrila baino lehen, honako justifikazio-agiri hau aurkeztu ondoren.

- Udal honek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publikoek nahiz pribatuen eskutik jasotako diru-laguntza guztien zinpeko aitortpena, elkartearen presidentek sinatua.
- Erakundeko idazkariaren ziurtagiria, Gobernu Organoak diru-laguntza onartzeko hartutako erabakia egiaztatzen duena.
- Jardueraren memoria, xehatutako programak eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu osoa, eginiko jardueren arabera xehakaturik.
- Diruz lagundutako gastuen faktura originalak edo kopia konpultsatuak. 2018ari dagokion data eduki behar dute, betiere 2018ko abenduaren 31 baino lehenagokoa.
- Aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren ziurtagiriak.
- Diru-laguntza eman zen xedea bete dela dioen ziurtagiria eta emandako diru-laguntzen baturak jardueraren kostua gainditzen ez dutela dioten egiaztaturik, erakundearen idazkariak igorria.

Diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da, osorik edo partzialki, baldin eta ez bada justifikatzen edo azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kausaren bat baldin badago.

**Laugarrena-** Alkate jaunari eskumena ematea dagokion konpromiso-agiria sinatzeko.

**Bosgarrena.** – Erakunde interesdunari jakinaraztea diru-laguntza hau eman zaiola.

Arespalditzan, ALKATEA”

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du, Batzordean adostu bezala, talde politikoek adostu zutela proposamen bat egingo zutela diruz lagundu beharreko proiektuen inguruan. Gehitu du EH-BILDU talde politikoak Aiara Batuz talde politikoarekin adostutako proposamen bat egin duela, eta, bertan, proposatzen dute proiektuen ordena aldatzea, hau da, lehenik, “Edateko uraren eta saneamenduaren sistemak hobetzea Las Azucenas komunitatean. San Carlos” proiektua lagunduko litzateke diruz, eta jakinaraziko baligute proiektu hori osatua dagoela beste ekarpen batzuekin, bigarrenik, “Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketaren intzidentzia ikertzea eta gaitasunak garatzea” proiektua lagunduko litzateke diruz. Alkate jaunak, Gentza Alamillo Udaetak (EAJ-PNV), amaitzeko, esan du, Batzordean adierazi moduan, bere taldeak ez duela inolako eragozpenik proposamen hau onartzeko, proiektuen ordena aldatzeko, eta aldaketaren bat baldin badago, jakinaraziko dela.

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak hartu du hitza, eta adierazi du proposatzen duten proiektuen ordena-aldaketa ez dela apetazkoa, baizik eta hemendik eratorria: premia-premiazkoa da hornidura eta arazketako sistemak hobetzea, baina bigarren proiektua anbiguotzat jotzen zuten, nahiz eta oso garrantzitsua izan, dituen konnotazioengatik.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta aho batez adostu du idatzitako akordio proposamena onestea, proiektuen ordena aldatuta; hau da, lehenengo, “Edateko uraren eta saneamenduaren sistemak hobetzea Las Azucenas komunitatean. San Carlos” proiektua lagunduko da diruz, eta dirua ematean EUSKAL FONDOAK jakinaraziko baligu aurreko proiektua bukatua dagoela, Aiarako Udalak “Mendebaldeko Saharako giza eskubideen urraketaren intzidentzia ikertzea eta gaitasunak garatzea” proiektuari lagunduko dio.

**3. Aiarako Udalak Bikarteri 2018ko ekitaldian ekarpena egiteko proposamena, haur errusiarrak eta bielorrusiarrak aldi baterako hartzeko programarako.**-Jarraian, udalbatzari EAJ-PNV udal-taldeak egindako akordio-proposamenaren berri eman zaio, Aiarako Udalak Bikarteri diru-laguntza bat ematearen inguruan; honela dio:

### **ERABAKI-PROPOSAMENA:**

Aiarako Udalak proposatzen du 2018ko ekitaldirako udal-aurrekontuko 231.481003 aurrekontu-aplikazioko 1.000,00 € ematea BIKARTE ELKARTEArekin lankidetzan jarraitzeko, adingabe errusiarrak eta bielorrusiarrak aldi baterako hartzeko programan.

Elkarteak emandako agirietan, familia hartzaileen datuak eta hartutako haurren datuak jasotzen dira; dena dela, familia hartzaileetako bat besterik ez dago Aiaran erroldatua Udalean eskaera egiteko unean.

AINTZAT HARTU DA azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legean, zuzenean emateko kasuen artean, arauaren 22.2.c) artikuluan hau ezartzen dela: “c) Salbuespen moduan, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen badira, edo deialdi publikoa zailtzen duten beste batzuk, behar bezala justifikatzen badira”.

Beraz, proposamen hau salbuespenezkoa denez, ohiko prozeduraren lehiaren aurrean, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak justifikatzeko txosten bat behar da.

Kasu honetan, Bikartek gidatzen duen proiektuaren interes sozial eta humanitarioa egiaztatzen duen, eta, beraz, deialdi publikoa egitea zailtzen duen arrazoa da Udal honetan erroldatutako familietako batek, haur bat harreran hartuta, elkarrekin egiten duen lan humanitarioari laguntzen diola, eta, aldi baterako bada ere, hartutako adingabeen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duela.

Horregatik, Udalbatzak honako erabaki hau hartzea proposatu du:

**Lehenengoa.** BIKARTE ELKARTEARI 1.000,00 € euroko diru-laguntza ematea, 231.481003 aurrekontu-aplikazioaren kargura, “**LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK**”, haur errusiarrak eta bielorrusiarrak aldi baterako hartzeko programarako.

**Bigarrena.-** Diru-laguntza jarduera justifikatzean emango da, 2019ko urtarrila baino lehen, honako justifikazio-agiri hau aurkeztu ondoren.

- Udal honek diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko erakunde publikoek nahiz pribatuen eskutik jasotako diru-laguntza guztien zinpeko aitortpena, elkartearen presidenteak sinatua.
- Erakundeko idazkariaren ziurtagiria, Gobernu Organoak diru-laguntza onartzeko hartutako erabakia egiaztatzen duena.
- Jardueraren memoria, xehatutako programak eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu osoa, eginiko jardueren arabera xehakaturata.
- Diruz lagundutako gastuen faktura originalak edo kopia konpultsatuak. 2018ari dagokion data eduki beharko dute, betiere 2018ko abenduaren 31 baino lehenagokoa.
- Aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren ziurtagiriak.
- Diru-laguntza eman zen xedea bete dela dioen ziurtagiria eta emandako diru-laguntzen baturak jardueraren kostua gainditzen ez dutela dioten egiaztagiria, erakundearen idazkariak igorria.

Diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da, osorik edo partzialki, baldin eta ez bada justifikatzen edo azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako kausaren bat baldin badago.

**Hirugarrena.** – Erakunde interesdunari jakinaraztea diru-laguntza hau eman zaiola.

Arespalditzan, ALKATEA”

Udalbatza jakinaren gainean dago, eta aho batez erabaki du hitzez hitz jasotako erabaki-proposamena onestea, idatzi den moduan.

**5.- Aiarako Udalaren Euskararen Erabilerraren Plan proposamena. 2018-2022 Plan Estrategikoa.** Jarraian, Udalbatzari Aiaraiko Udalaren 2018-2022rako Euskararen Plan Estrategikoaren berri eman zaio, eta horrela dio (ez dira Udalbatzako lanpostuak hitzez hitz jaso, izaera pertsonaleko datuak dauzkatelako):

AIARAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERRAREN PLANA

(Proposamena)

2018-2022ko PLAN ESTRATEGIKOA

ERAKUNDEA: Aiaraiko Udala

PROPOSAMENAREN DATA: 2018/12/05

V. PLANIFIKAZIO-EPEAREN EBALUAZIO OROKORRA (2013-17) (Lakua, 2017-06-29)

INDARGUNEAK

Hizkuntza-gaitasuna eta jarrera

Langileen hizkuntza-gaitasuna handitu egin da, neurri handi batean, derrigortasun-datak ezarri direlako. Egungo gaitasun-maila handia oinarri egokia da erabilera bultzatzeko. Administrazioan sartu berri diren langileen euskara-ezagutza maila oso handia da; beraz, kasu horretan, ezinbestekoa da arduradun politikoak hizkuntza-irizpideak erakustea harrera-protokoloan. Nahiz eta euskararen aurreko jarrera ona den, erabilera tokiko hizkuntza-egoerari lotutakoa da; toki oso erdaldunetan, langileek ez dute inongo beharrik ikusten euskara erabiltzeko. Aktibatu egin behar dira, eta, horretarako, politikariek eta goi-mailako kargudunek eredugarriak izan behar dute.

Trebakuntza

Gaitzeko eskaintza eta eskaera handiak dira; administrazioan trebakuntza-saio eta gaitzuntza egokituko saio asko eskaintzen dira. Trebakuntza-eskaintzari eutsi behar zaio, euskara-maila hobetzeko, estiloa, motibazioa lantzeko eta aliatuak irabazteko... Gainera, hemendik aurrera beste trebakuntza-saio mota bat ere bultzatu behar da, idatzizko lan-hizkuntzari garrantzia emateko,

berrikusketa- eta zuzenketa-saioak, adibidez. Horretarako guztirako, erraztasunak eman behar zaizkie langileei.

#### Erabilera eta Hizkuntza Irizpideen Plana

Plana onetsita edukitzeak babesa eskatzen du. Beharrezkotzat jotzen da hizkuntza-irizpideak erakundeen praktikan ezarrita eta sartuta egotea.

#### Erreferentzialtasuna

Eusko Jaurlaritzak badauzka gutxieneko batzuk, baina ez da nahikoa, eta asko hobetu behar du erreferente izan nahi badu. Ordea, beste erakunde batzuek erreferente aurreratu batzuk ezarri dituzte, oso onuragarritzat jotzen direnak honek aurrera jarrai dezan. Erakundeetako Euskara Zerbitzuaren garrantzia azpimarratzen da, erreferentetzat jotzen baita.

### HOBETU DAITEZKEN ALDERDIAK

#### Hizkuntzaren ezagutza eta erabilera

Hainbat lekutan, euskara ez da zerbitzu-hizkuntza moduan guztiz bermatzen. Euskararen ezagutza eta erabilera hobetzeko:

-DERRIGORTASUN-INDIZEA ETA DERRIGORTASUN-DATAK: Ahalik eta derrigortasun-data kopururik handiena finkatu beharko litzateke, batez ere lanpostu estrategikotan, ezagutza bermatu eta trinkotzeko. Horrez gain, derrigortasun-datak ezartzen jarraitu behar da, toki bakoitzeko derrigortasun-indizea bete eta gainditzera mugatu gabe. Orain arte gertatu ez den bezala, lanpostu guztiek izan beharko lukete derrigortasun-data, eta kontratazio berrietan gutxieneko ezagutza bat eskatu beharko litzateke (EJren adibidea aipatu da). Horretarako, ezinbestekoa da legea aldatzea.

-ERABILERA: Boluntarioa izateari utzi behar dio, eta, leku batzuetan, legezko oztopoak, mugak eta euskaraz bakarrik funtzionatzeko baliabide-falta desagerrarazi behar dira (esate baterako, lege-testu gehienak gaztelaniaz soilik egotea eskuragarri).

#### Buruzagitza

Leku askotan erantzukizun- eta inplikazio-falta nabari da kargu politikoen eta kargu garrantzitsuenen artean, eta bi elementu horiek ezinbestekoak dira planari babesa emateko. Ez dago zeharkakotasunik, erantzukizun guztia Euskara Zerbitzuaren esku dago, eta askotan mugatua da. Horregatik guztiagatik, gutxieneko hizkuntza-gaitasuna, eta ezagutza- nahiz ulermen-maila eskatu behar zaie, eta planaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren baliabide eta tresnak eskaini behar dituzte. Hizkuntza-irizpideak bermatu behar dira kontratazioak egiterakoan, baita harrera-protokoloan agerian jarri ere.

#### Administrazioen arteko harremanak

Maila teknikoan egiten den moduan, maila politikoan ere EJren eta administrazio publikoen arteko harremanak, komunikazioa eta koordinazioa hobetu behar dira. Administrazioen artean trabak egon ohi dira dokumentuak euskaraz aurkezteko.

### ERRONKAK

#### Gaitasuna eta erabilera

Urratsak ematen jarraitu behar da euskara zerbitzu- nahiz lan-hizkuntza izateko, eta, horretarako, euskara erdigunean kokatu behar da. Gaitasuna bermatzeko ahalik eta derrigortasun-data kopururik handiena finkatu behar da, eta, horrez gain, hizkuntza-eskakizunak bateratu eta egokitu behar dira. Lanpostu eta funtzio bakoitzari lotutako erabilera arautu behar da; erabilerak ezin du boluntarioa izan. Langileak gai izan behar dira euskaraz lan egiteko, eta, horrez gain, protokolo egokiak ezarri behar dira langile berriek euskaraz lan egiten dutela bermatzeko. Euskara-unitateen lan-kargaren zati handiena ez dezatela itzulpenek osatu: horretarako, maila guztietan motibazioa, sentsibilizazioa eta prestakuntza eskaintzeko lan egin behar da. Herritarren hizkuntza-ohiturak ere

aldatu egin behar dira. Administrazioak euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu behar du, eta, hori ez bada betetzen, herritarrek kexak aurkeztu behar dituzte. Agintari politikoek gidatu behar dute kanpaina hori.

## Buruzagitza

Politikarien buruzagitza, inplikazioan eta hizkuntza-gaitasunen eragin behar da. Eredua zehaztu behar dute. Hizkuntza-irizpideak ezarri eta betearazteaz gain, Euskara Planaren zeharkakotasuna bermatu behar dute.

### SARRERA (VI. Plangintza Epearen Testuingurua, 2018-2022)

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkie herritarrei, eta botere publikoek hizkuntzari begira dituzten betebeharrak zehazten ditu.

Lege horren 14. artikulua herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortzen dizkien eskubideak bermatzeko, administrazio langileen pixkanakako euskalduntzea eta plantilletan bi hizkuntza ofizialen nahitaezko ezagutza eskatzen duten lanpostuak finkatzeko beharra aurreikusten ditu.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen V. Titulua eta Eusko Jaurlaritzak administrazio publikoetan euskara normalizatzeko onartutako arautegi-arauak euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren arloan izan behar duen isla dira alde batetik, eta administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarria bestetik.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak euskal administrazio publiko guztiei euskara erabiltzeko planak onartzeko betebeharra ezartzen die. Gainera, dekretu horren 18. artikuluan aipatutako planek jaso behar dituzten gutxieneko edukiak zehazten dira.

Azkenik, kontuan hartu behar da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea. Lege horretako 6. eta 7. artikuluen arabera, euskara toki-erakundeen jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izango da, eta, horrez gain, bermatu behar da herritarrek benetan egikaritu ahal izatea toki-erakundeekin harremanak izateko orduan hizkuntza ofiziala hautatzeko duten eskubidea.

Testuinguru horretan, Aiarako Udalak, indarreko araudiarekin eta eskumen-testuingururako jarraibide eta ordenantzekin bat etorritik, 2018-2022 eperako Euskara Plana prestatu eta onartuko du.

## LANPOSTUEN ZERRENDA / EGUNGO LANGILEEN ZERRENDA

.....

### DERRIGORTASUN-INDIZEA

Aiarako Udalak VI. Plangintza Eperako (2018-22) izango duen derrigortasun-indizea 49,09koa da (EUSTAT 2016); beraz, gutxienez udaleko lanpostu-zerrendako lanpostuen % 49,09ak derrigortasun-data bat izan behar du. Gaur egun, 13 lanpostu daude Aiarako Udalean, eta horietatik 9k (% 69,23) derrigortasun-data dute. Beraz, esan daiteke eskatutakoa betetzen dela, gutxienez 6 lanpostuk izan behar baitute data.

## EGUNGO LANGILEEN ZERRENDA ETA HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN EGIAZTAPENA

Gaur egun, Aiarako Udalean 9 langilek egiten dute lan modu aktiboan, eta, horietatik:

- 5 langilek egiaztatua dute beharrezko hizkuntza-eskakizuna (3. administraria, 4. administraria, Atezaina, zerbitzu anitzeko langilea eta mantentze-lanen arduraduna).

- Langile batek ez du egiaztatu beharrezko hizkuntza-eskakizuna (gizarte-laguntzailea) eta, adina dela eta, ez du horretarako betebeharririk. Adina dela eta, ez da aurreikusten ikasketa-prozesurik egiaztapenari begira.

- Nahiz eta nahitaezkoa ez izan, 3 langilek ez dute egiaztatu hizkuntza-eskakizuna (idazkari kontu-hartzailea, 1. administraria, 2. administraria). Adina dela eta, ez da aurreikusten ikasketa-prozesurik egiaztapenari begira.

Laburbilduz, Aiarako Udaleko 9 langileetatik 5ek egiaztatua dute beharrezko hizkuntza-eskakizuna, eta gainerako 4ek ez dute egiaztatu hizkuntza-eskakizunik.

LEHENTASUNEZKO LANGILEAK, 2018-2022 Euskara Planari begira:

Plan honi begira lehentasunezko langiletzat hartuko dira udal-plantillako (edo Kuadrillak Aiarako Udalean lan egiteko kontratatutako) langileak, behin beharrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ondoren jendearentzako arretan edo jarrera sozialeko lanpostuetan lan egiten dutenak.

Aiarako Udaleko lehentasunezko langileak:

- 4. KOD: Administraria (3. HE egiaztatua): jendearentzako arreta
- 5. KOD: Administraria (2. HE egiaztatua): jendearentzako arreta
- 10. KOD: Atezaina (2. HE egiaztatua): jendearentzako arreta

Aiarako Kuadrillako langileak, Aiarako Udalaren Euskara Planari begira lehentasuna dutenak:

- Teknikari-animatzaile soziokulturala (3. HE egiaztatua): izaera soziala
- Ingurumen-teknikaria (4. HE egiaztatua): izaera soziala
- Berdintasun-teknikaria (4. HE egiaztatua): izaera soziala
- Gizarte Ongizateko administrazio-laguntzailea (2. HE egiaztatua): jendearentzako arreta

LEHENTASUNEZKO LANGILEEI LOTUTAKO PROPOSAMENAK:

- Langileen artean HABEren ikastaroei (urrunekoak edo presentzialak) buruzko informazioa zabaltzea, hizkuntza ikasteko ez direnak, baizik eta administrazioari lotutako jarduera zehatzak euskaraz egiteko. Gaia dagokion komisioan jorratzea eta beharrezko erabakiak hartzea.

- AFArekin, HABErekin eta beste erakunde batzuekin trebakuntza-zerbitzuak (lanpostuari lotutakoak) abian jartzeko baldintzak aztertzea, ekonomikoki eskuragarriak eta lanpostu eta erakunde bakoitzera egokitutakoak. Helburua langileak idatzizko funtzio zehatzak euskaraz egiteko prestatzea da, itzulpen-zerbitzuetara edo kanpoko laguntzara jo gabe.

- Pixkanaka euskararen erabilerarako mikroplanak zehaztea langileek idatzizko funtzio zehatzak (batez ere) aurrera eramateko, eta dagokion organoaren bitartez onartzea (ikus AHOZKO KOMUNIKAZIOAK atala)

LANGILEEN KONTRATAZIOAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENA: Aiarako Udalak langileak kontratatu behar dituenen, bai plantillako lanpostuak betetzeko eta bai kanpoko lanpostuetarako (edo autonomoak), kasu bakoitzerako beharrezkoa diren ezagutza-irizpideak zehaztu beharko ditu, betiere kasu bakoitzera moldatuz. Kontratazio-organoa arduratuko da irizpide hori aplikatzeaz, eta euskara-zerbitzuari, HABEri eta antzerakoei informazioa eskatu ahal izango die, kasu bakoitzari dagokion irizpidea aplikatzeko.

## 1. Hizkuntza-gaitasuna

### 1.1. Hizkuntza-eskakizunen egiaztapena areagotzea

Ez da bideragarritzat jotzen hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten langileen euskalduntzea.

### 1.3. Arduradun politikoen euskara-maila hobetzea

Arduradun politikoak funtsezkoak dira euskara-planaren zeharkakotasuna ahalbidetzeko, baita euren alorreko langileek euskara lan-funtzioetan erabiltzeko ere:

Behin plana onartu ondoren, gobernu-taldeak zabaldu egingo du, eta, horrez gain, arduradun politikoak sentsibilizatuko ditu onartutako euskara-planaren zeharkako garapena kontuan har dezaten eta plan hori euren jarduera-eremuetan inplementatzeko lan egin dezaten.

## 2. Ahozko komunikazioak

### 2.1. Erakundearen kanpoko ahozko harremanetan euskararen erabilera areagotzea

TELEFONO-HARREMANAK ETA LEIHATILA. : gogoratu “lehen hitza euskaraz” irizpidea, hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileek aplika dezaketena. Ondoren, solaskideak aukeratutako hizkuntzara egokituko da. Lanpostu horietan identifikazio-elementuak ipintzea, herritarrak jakiteko leihatilan euskaraz hitz egin dezakeela.

KANPOKO KONTRATAZIOAK: neurriak 12. puntuan zehaztuko dira (kontratazio administratiboa); izan ere, kontratatutako zerbitzuek, eta bereziki erabiltzailearekiko harreman zuzena dakartenek, administrazioari begira zehaztutako baldintzak bete behar dituzte.

EKITALDI PUBLIKOAK (aurkezpenak, prentsaurrekoak, jardunaldiak...): Euskararen presentzia eta erabilera bermatzeko, presentzia eta erabilera hori bakarka finkatuko da ekitaldi bakoitzerako. Horretarako, bideragarritasun-faktoreak erabiliko dira erantzule politiko eta teknikariei begira: hartzaileen adin-tartea eta kolektiboa, langileen, erantzule politikoen edo hirugarren pertsonen euskara-maila, etab. Ekitaldiaren balioztapenean atal bat gehituko da euskararen presentzia eta erabilera zehazteko. ERANTZULE ZEHATZAK: ekitaldi bakoitzean inplikaturako langile eta politikariak. Ekitaldien balioztapenetan, hizkuntza-parametroak gehituko dira, eta, hala badagokio, beharrezko neurri zuzentzaileak proposatuko dira.

HE egiaztatuta duten langileei proposatzea euren laneko helbide elektronikoan “Nahi baduzu, euskaraz” mezua edo antzeko mezu bat gehitzeko.

Webgunea zehaztea Aiarako Udaleko zein zerbitzu jaso ditzaketen herritarrek ahoz eta euskaraz (HE egiaztatu duten guztiak)

### 2.2. Erakundearen barruko ahozko harremanetan euskararen erabilera areagotzea

- HE egiaztatu duten langileak motibatu eta sentsibilizatzea “Lehen hitza euskaraz” leloari begira, bai tokiko lan-harremanetan eta bai telefono-deiak pasatzerakoan.
- Lehenasunezko langileak motibatu eta sentsibilizatzea elkarren arteko ahozko eta idatzizko (mezu elektronikoak) harremanetan euskara erabiltzeko, eta, interesdunekin batera mezu elektronikoen erabilera aztertzea (ereduen bitartez)

## 3. Idatzizko komunikazioak

3.1. Erakundearen kanpoko idatzizko harremanetan euskararen erabilera areagotzea, jatorriz euskaraz sortutako materialaren ehuneko handituz, erabilitako euskarria edozein dela ere eta komunikazioen kalitatea zainduz

- Lehenasunezko langile bakoitzaren kanpoko idatzizko komunikazio-funtzioak zehaztea (formatu guztietan: papera, formatu telematikoa), euskararen egungo erabilera ere. Erabilera areagotzeko proposamen partekatu eta errealista egitea eta ebaluazio-metodoa zehaztea.
- Sarrera- eta irteera-erregistroetan erabilitako hizkuntzei buruzko informazioa biltzea, dagokion erregistro-programan jasotakoa, eta neurri errealistak aztertu eta proposatzea jakinarazpenetan euskararen erabilera areagotzeko, honako helburu hauekin:
  - o Euskaraz erantzutea euskarazko sarrerei, eta bi hizkuntzetan sarrera elebidunei.
  - o Euskarazko irteeren eta irteera elebidunen ehuneko handitzea.

- Bat egitea erakunde publiko ezberdinen arteko akordio hipotetiko batekin (udalak, kuadrillak, aldundiak, EJ), elkarren arteko idatzizko komunikazioetan euskara erabiltzeko gutxieneko irizpideak ezartzeko helburuarekin.

- Aurreko planetan onartutako irizpideak berriro ere zabaltzea irizpide horiek sistematikoki aztertzeko: bi zutabeko testuetan euskara ezkerrean kokatuko da; gainjarritako testuetan gainean kokatuko da; beste kasu batzuetan kontuan hartuko da letraren tamaina, letra lodiaren erabilera, etab.

- Lehentasunezko langileen artean euskaraz lan egiteko tresna informatikoak zabaltzea (hiztegiak, zuzentzaileak, etab.)

3.2. Erakundearen barruko idatzizko harremanetan euskararen erabilera areagotzea, jatorriz euskaraz sortutako materialaren ehuneko handituz, erabilitako euskarria edozein dela ere eta komunikazioen kalitatea zainduz

- Udaleko komisio eta bilkura batzuen deialdiak bi hizkuntzetan igortzeko aukera aztertzea.
- Osoko bilkuretako aktak euskarara itzuliko dira itzulpen-enpresa baten bidez.

Komisioetako aktak ez dira itzuliko.

- LEHENTASUNEZKO LANGILEEN ARTEKO POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO LAN-JAKINARAZPEN LABURRAK (ikusi 2.2 puntua): lehentasunezko langileen mezuak aztertuko dira beste langileekiko hizkuntza-erabilerak aztertzeko, eta gutxiengo ehunekoak ezarriko dira honako helburu hau betetzeko:

- o Gainerako lehentasunezko langileei zuzendutako lan-jakinazpen laburrak euskaraz idazten hastea

3.3. Erabilera-planak araututako langileen kanpoko idatzizko harremanetan euskararen erabilera areagotzea, jatorriz euskaraz sortutako materialaren ehuneko handituz, erabilitako euskarria edozein dela ere eta komunikazioen kalitatea zainduz

- Zalantzak Kuadrillaren Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin argitu ahal izango dira, ahalik eta denbora-eperik laburrenean (momentuko eskuragarritasunaren arabera). Bestalde, lehentasunezko langileen artean banatuko dira Interneteko tresna egokienak erabiltzeko erreferentziak (hiztegiak, zuzentzaileak...)

- Ikusi 8. orrialdean lehentasunezko langileei zuzendutako bigarren proposamena (trebakuntzaren kontratazioa)

#### 4. Itzulpenak

- Itzulpen-enpresa bat erabiltzen jarraituko da lehentasunezko zat jotzen diren dokumentuak bi hizkuntzetan hedatzeko. Hala ere, itzulpenak sistematikoki erabiltzeak ez du oztopatuko trebakuntza-sistemak abian jartzea lehentasunezko langileek gero eta euskarazko idatzizko funtzio gehiago burutzeko.

- Itzulpen-premiak aztertzea, eta, hala badagokio, eguneratzea.

#### 7. Internet eta Intranet sareak

##### 7.1. Euskararen erabilera areagotzea Intranet eta Internet sareetan

- Erakundearen webgunea bi hizkuntza ofizialetan egongo da eskuragarri, eta eguneratutako edukiak berdin-berdinak izango dira. Edukiak webgunean argitaratzeaz arduratuko den pertsonak bi hizkuntzetako edukiak jasoko ditu, eta dagokien lekuan argitaratuko ditu. Eduki elebidun hori bidaltzeaz arduratuko direnek kontuan hartuko dute betebeharrak hori, eta hori betetzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte (lehentasunezko langileak: edukien itzulpen propioa, euskara-zerbitzuaren laguntza edo zuzenketarekin; lehentasunezkoak ez diren langileak: itzulpen-enpresaren bidezko itzulpenak).



- Irizpide bera aplikatuko da pantailetan eta Whatsapp bidez hedatzen den udal-informazioari begira.

## 8. Argitalpenak

### 8.1. Argitalpenetan euskararen presentzia areagotzea

- **IRIZPIDE OROKOR ETA ZEHATZA ARGITALPENEI BEGIRA:** irizpide orokorraren arabera, bi hizkuntza ofizialek presentzia bera izan behar dute argitalpenetan. Eskolako eta euskaltegietako ikasleei edo Berbalagun eta halako kolektibo zehatzei zuzendutako argitalpenetan euskara bakarrik ere erabili ahal izango da, proiektuak zehaztutakoaren arabera.

## 9. Hizkuntza-paisaia (errotuluak eta aldizkako oharrak)

9.2. Administrazioari begira, trafiko-seinaletan, toponimian eta aldizkako oharretan euskararen presentzia areagotzea eta hautemandako akatsak zuzentzea.

- Edozein euskarritan akatsak hautematea eta zuzentzeko eskatzea Normalizatutako eskualde-toponimoen erabileraren inguruan sentsibilizatzea, bai Aiaraldeako mapan eta bai udal-mapetan.

## 10. Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak

10.1. Euskararen erabilera areagotzea iragarkietan, publizitatean eta kanpainetan, baita hautemandako akatsak zuzentzea ere

- Oro har, bi hizkuntza ofizialek presentzia bera izan behar dute Aiarako Udalak edozein euskarri edo hedabide erabilita egiten dituen iragarkietan, publizitatean eta kanpainetan, eskolei, institutuei, euskaltegiei eta antzerako kolektiboek zuzendutako ekimenen salbuespenarekin, horiek euskaraz bakarrik ere egin daitezkeelako. IRAGARKI, PUBLIZITATE edo KANPAINEKIN lotutako ekimenek kontuan hartu beharko dituzte euskararen presentzia eta erabilera, eta irizpide hori betetzea dagokion sailaren erantzukizun tekniko eta politikoa izango da. Zerbitzu mota hori emateko kontratu bat sinatzen denean, kontratuan hizkuntza ofizialen presentziarekin eta erabilerarekin lotutako irizpideak gehitu beharko dira.

- **EKITALDI PUBLIKOETAN** (produktu eta ekimenen aurkezpenak, esate baterako) ere kontuan hartuko dira euskararen presentzia eta erabilera, bi hizkuntzen presentziaren banaketa zuzenean oinarrituta. Horretarako:

Udaleko edo harentzat lan egiten duten kargu politiko eta langile elebidunek euskararen erabilera bermatuko dute ekitaldi publikoetan parte hartzen dutenean. Udalak bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzeko beharrezko den hizkuntza-gaitasuna duten pertsonak izendatuko ditu ekitaldi publikoetan parte hartzeko.

## 11. Diru-laguntzak

### 11.1. Hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatzea diru-laguntzak esleitzerakoan

- Aiarako Udaleko diru-laguntzen oinarrietarako onartutako hizkuntza-irizpideak aplikatu eta betetzea.

## 12. Kontratazio administratiboa

### 12.1. Hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatzea kontratazio-fase guztietan

- Kontratazioetan parte hartzen duten langileen artean kontratazio administrazioei begira onartutako neurri orokorrak banatuko dira, eta, hala badagokio, hizkuntza-klausulak jasotzen dituzten pleguen ereduak. Enpresetan euskara kudeatzeko ziurtagirien (besteak beste, BIKAIN eta BAI EUSKARARI) inguruko informazioa ere emango zaie, kontratazio-pleguetan gehitu ala ez aztertzeko.

- Kontratazio-sail edo mahai bakoitzak zerbitzu-eskaerari begira (idatzizko kontratua behar duen ala ez alde batera utzita) kontuan hartu beharreko alderdien artean euskararen presentzia eta erabilera daude.

Kontratazio-plegu guztietan zerbitzua ematerakoan kontuan hartu beharreko hizkuntza-irizpideei buruzko puntu bat gehituko da. Kontratutako zerbitzu bakoitzaren irizpideak zerbitzuaren tipologiaren arabekoak izango dira (adibidez, beharrezkoa den ala ez herritarrekin harremanetan jartzea, zein kolektibori dagoen zuzenduta, etab.), eta modu xehatu eta errealistan zehaztuko dira. Euskara-zerbitzuari ere laguntza eskatu ahal izango zaio irizpide horiek finkatzeko. Kasu bakoitzean onartutako irizpideak betetzen direla ebaluatzeko erantzukizuna sail bakoitzaren esku egongo da, kontratatutako zerbitzuaren zati bat baita. Beraz, Euskara Zerbitzuari eskatzen duen informazio guztia emango zaio Euskara Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

- Zerbitzu edo sail bakoitzean burutuko diren kontratazio administratibo nagusiak jasoko dira, eta, Euskara Zerbitzuaren lankidetzarekin batera, hizkuntza-klausula egokienak aztertu eta proposatuko dira.”

Nerea Goti Valle zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du errealitatera egokitutako plana dela, eta espero duela bertan aurreikusitako neurriak aurrera eramatea, euskararen erabilera erakundeetan nahiz erakundeetatik kanpo normalizatzeko helburuarekin. Horrez gain, adierazi du Planak aurrerratu beharreko gai batzuk azpimarratu dituela, azken uretan atzerapausoak egon baitira. Azkenik, adierazi du egokia izango litzatekeela onartutakoa betetzea.

Udalbatzak aho batez onartu du Aiarako Udalaren 2018-2022 Plan Estrategikoa, euskara sustatzeari buruzkoa.

**6º.- Udalbatzari organo parte-hartzailearen txostenaren berri ematea, aurrekontu-oreka ez betetzearen, diruzaintza-geldikinaren erabileraren eta 5/2018 Kreditu Gehigarriaren inguruan.-** Jarraian, Udalbatzari Kontu-hartzaitzaren 2018ko urriaren 14ko txostenaren berri ematen zaio, diruzaintza-geldikina kreditu gehigarri bat finantzatzeko eragin duen aurrekontu-desorekaren inguruan. Txostenak honako hau dio:

#### **" KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA**

GAIA: Aurrekontuaren aldaketa, diruzaintza-geldikina gastu orokorretarako erabiltzeko.

Aiarako Udaleko kontu-hartzaile karguaren eskumenak erabiliz eta Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa abenduaren 13ko 28/2013 Foru Arauak diruzaintza-geldikinaren erabileran eragindako aldaketak (7/2014 Foru Arauak aldatutakoak) kontuan hartuta (aldaketa horien ondorioz, geldikinari lotutako kreditu bat onartzeko beharrezkoa izango da Udalbatzari esku-hartzaitza txosten bat igortzea aurrekontuaren oreka bete ez dela jakinaraziz), honako txosten hau igortzen da, bi eranskinez osatua:

I. eranskina: geldikina hainbat kreditu emateko erabiltzeko proposamena.

II. Eranskina: kontu-hartzaitza txostena, aurrekontu-orekaren eta geldikina gastuak finantzatzeko erabiltzearen ingurukoa.

I. ERANSKINA: GELDIKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA.

2017KO LIKIDAZIOKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA ETA GASTU OROKORRAK, EZ GASTATUTAKOA: 280.739,39 € (gainerakoa 2017an baimendutako eta ekitaldi horretan ez gastatutako kredituen geldikinak gehitzeko erabili da, baita kreditu gehigarrietarako ere).

ERABILERA-PROPOSAMENA: 12.000,00 €

AIARAKO UDALAK ETA ALDAY FUNDAZIOAK 2018an ARESPALDITZAKO EGUNEKO ZENTROA KUDEATZEKO SINATUTAKO HITZARMENETIK ERATORRITAKO BALIO-GEHIKUNTZAREN LIKIDAZIOA: 12.000,00 €

ZENBATEKOA GUZTIRA: 12.000,00 €.

II. ERANSKINA: IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA, AURREKONTU-EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN INGURUAN

TXOSTENAREN I. OINARRIA

Toki Erakundeen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa abenduaren 13ko 28/2013 Foru Arauaren 7.1 artikulua 17/2014 Foru Arauaren bitartez xedatutakoaren arabera, aurrekontu-orekarekin, zor publikoarekin edo gastu-arauarekin lotutako helburuak betetzen ez badira, helburuak bete ez dituen administrazioak Plan Ekonomiko-Finantzariorik bat prestatu beharko du indarreko urtean eta hurrengoan gastu-arauaren helburuak betetzeko.

Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikulua zehazten du aurrekontu-orekaren helburua ez betetzea gastuak diruzaintza-geldikinarekin finantzatu izanaren ondorioz gertatu bada, plan ekonomiko-finantzariorik prestatu ordez Udalbatzari kontu-hartzaitza funtzioak betetzen dituen organoaren txostenaren berri emango zaio helburuak bete ez direla jakinarazteko, Udalbatzaren finantza-jasangarritasunaren analisi eta ebaluazioarekin batera, gutxienez honako alderdi hauek jorratuko dituztenak:

- a) Erakundearen eta haren menpe dauden organismoen aurrekontu-orekarako helburuak.
- b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, tendentziaren eboluzioa (hau da, aldaketarik gabeko politikak) eta adostutako eperako aurreikusitako neurrien eragina kontuan hartuta.
- c) Diru-sarrera eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.
- d) Aurrekontu eta finantzen egoera diruzaintza-geldikina agortzerakoan.
- e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastuan izango duen eragina.

Txosten hau kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.

Osoko bilkuraren akta, esku-hartze organoaren txostenarekin eta euskarri bezala erabili daitezkeen beste dokumentuekin batera, Toki Erakundeez arduratzen den Arabako Foru Aldundiko Sail eskudunari igorriko zaio, zeinak, 30 eguneko epean, beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango duen, eta, horrekin batera, neurri osagarriak hartu ahal izango ditu, besteak beste, plan ekonomiko-finantzariorik prestatzea, erakundearen finantza-jasangarritasuna bermatzeko. Zehaztutako epea igarotzen bada eta Arabako Foru Aldundiak ez badu ebazpenik aurkezten, espedientearen izapideekin jarraitu ahal izango da.

EREMU SUBJEKTIBOA:

Txosten honen helburua aurrekontuaren aldaketaren finantzaketak eragindako ezegonkortasun-egoera aztertzea da, Aiarako Udalaren diruzaintza-geldikinarekin erabileraren bidez.

HELBURUAK:

Proposatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak, diruzaintza-geldikinean oinarritua, egonkortasun-printzipioa urratzen du. Hala ere, arau-hauste horren izaera ez da egiturazkoa, koiunturazkoa baizik.

Horretarako, aurrekontu-magnitudeak aztertu behar dira. Txostenaren xedea honako helburu hauek egiaztatzea da:

- Aurrezpen garbi positiboa

- Diruzaintza-geldikin positiboa
- Finkatutako zorpetze-mailak ekitaldi bakoitzean zehaztutako mugen barruan daudela
- Finkatutako aurrekontu-oreka, superabitarekin edo finantzaketa-gaitasunarekin (KSEren terminoetan)
- Gastu-araua betetzea

Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa abenduaren 13ko 28/2013 Foru Arauaren (17/2014 Foru Arauaren bitartez) 7. artikulua 3. atalean xedatutakoarekin bat etorritik, txostenak honako egitura hau izango du:

1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen aurrekontu-orekarekin lotutako helburuak bete diren ala ez aztertuko da.

2.- Gastu- eta sarrera-egoeren proiektzioa

3.- Inbertsioaren funtzionamenduak gastuan izango duen eragina.

## II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTU-OREKAREN HELBURUAK

Onartutako azken likidazioan lortutako datuen artetik, honako hauek nabarmentzen ditugu:

MAGNITUDEA	ZENBATE	BETETZEA/EZ BETETZEA
Aurrezpen garbia	306.668,44	POSITIBOA
Diruzaintza-geldikina	550.133,56	POSITIBOA
Aurrekontu-emaitza	168.908,23	POSITIBOA
Zorpetze-maila	0	
Aurrekontu-oreka	167.278,99	SUPERABITA. BETETZEA
Gastu-araua	+ 81.368,53	% 7KO IGOERA. EZ BETETZEA. OSOKO BILKURARI DIRUZAINZATXOSTENAREN BERRI EMAN ZAIO. EZ DA FINANTZA-PLANIK BEHAR

## III. GASTU- ETA SARRERA-EGOEREN PROIEKZIOA.

Epe honetarako Plan Ekonomiko Finantzarioan zifrak proiektatu ahal izateko aldagai eta neurriak zehaztasunez definitzeko helburuarekin, honako EGOERA hau planteatu dugu:

Susperraldi ekonomikoko egoera bat hartu dugu kontuan, eta, gure ustez, egoera horren ondorioz, toki-erakundearen jardura ekonomikoa berdina edo handiagoa izango da. Horrek toki-sarreraren hobekuntza ekarriko du, bereziki Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean parte hartzeagatik lortutakoena, baita zerbitzu publikoen prestakuntzak areagotzea ere.

Gastuei dagokienez, gai honi lotutako murrizketak hartu behar dira kontuan, bai langile-gastuei begira eta bai beste gastu mota batzuei begira, estatuko aurrekontu orokorrei buruzko legeetatik eta aurrekontu-orekaren helburua betetzearekin lotutako murrizketetatik eratorriak (gastu-araua, gastu-muga, finantza- jasagarritasuna eta finantza-egonkortasuna).

## MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA.

Honako hauek dira zehaztutako ekitaldietan aztertutako magnitudeek izan duten bilakaera:

HELBURUAK	2.015	2.016	2017
Aurrekontu-oreka	68.196,98 €	292.710,37	167.278,99 €
Egonkortasun/sarrera % Ez zarioa	% 2,51	% 11,92	% 7,14
Gastu-araua	370333,93	-185.481,66	81368,53
Zorpetzea	0	0	0
Aurrezpen garbia	295552,46	288.786,63	306.668,44
Aurrezpen garbia/sarrera %	% 14,19	% 13,86	% 14,19
DIRUZAINNTZA-GELDIKINA	440.692,28	591.367,50	550.133,56

#### IV. AURREKONTU ETA FINANTZEN EGOERA DIRUZAINNTZA-GELDIKINA AGORTZERAKOAN.

##### III-C.1 DIRUZAINNTZA-GELDIKINA.

Diruzaintza-geldikin positiboak erakundeak epe laburrean pilotutako likidezia islatzen du, denbora-une batean eskuragarri dagoena etorkizun hurbileko gastuak finantzatzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina.

Gastu orokorretarako geldikina aurrekontuari aplikatu beharreko hartzekodunen datuetara eta ordaindu beharreko diru-sarreraren itzulerara egokitzen da, eta horrek egoeraren irudi errealagoa ematen digu. Magnitude horrek toki-erakundearen epe laburreko likidezia errealari buruzko informazioa ematen digu.

##### III-C.2 AURREZPEN GARBIA.

Aurrezpen garbiak Udalbatzaren zorpetze-gaitasunaren berri ematen digu. Aurrezpen garbia negatiboa bada, erakundeak ez dauka gaitasunik epe luzeko mailegu-operazioei aurre egiteko. Aurrezpena positiboa bada, berriz, epe luzeko mailegu-operazioei aurre egiteko gaitasunaren berri emango digu, baita zenbatekoaren eta baldintzen berri ere. Baina magnitude horrek erakundearen zorpetze-gaitasunaren inguruko informazio zehatzagoa eman ahal izateko, Arau Foralean xedatutakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa egokitu beharko litzateke, ez ohiko sarrera ez errepikakorrak murriztuz.

##### III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK.

Zor bizi adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen-arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz sor daitezke, finantza-kargaren igoera eragin dezakeena. Hala ere, ezinezkoa da erakundearen diru sarrerek karga eta gastu horiek bere gain hartzea, eta, ondorioz, aurrezpen garbia negatiboa da

##### III-C.4 AURREKONTU-OREKA.

Aurrekontu-orekak erakundearen finantzaketa-gaitasunaren edo beharraren berri ematen digu, eta, horren ondorioz, zorpetzeaz ez du urtero amortizatzen den zenbatekoa gaindituko (KSE 95 terminoetan kalkulaturak). Erakundeak finantzaketa-beharrak baldin baditu (gastu ez finantzarioak diru-sarrera ez finantzarioak baino handiagoak dira), horrek esan nahi du kanpoko finantzaketa (zorpetzea) behar duela gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzaketa-ahalmena badu (gastu ez finantzarioak diru-sarrera ez finantzarioak baino txikiagoak dira), agerian gelditzen da erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen marjina.

### III-C.5 GASTU-ARAU.

Gastu-araua zerga-arau bat da, gastu konputagarria mugatzeko helburua duena, ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onartutako ehunekoan soilik igo dadin. Horrela, aurrezpen publiko handiagoa lortuko du, diru-bilketa neurrien osatutako gastuaren hazkundera mugatuz. Magnitude hori 2018rako aurrekontuaren likidazioaren bitartez zehaztuko da ekitaldi honetarako.

### III-D. MAGNITUDEEN BILAKAERATIK ATERATAKO ONDORIOAK

Sarrera eta gastuen egoerari buruzko kapituluan landutako datuak kontuan hartuta, esan daiteke aurrekontu-aldaketaren finantzaketa, diruzaintza-geldikinareen bitartez finantzatutakoa, ez dela desoreka estruktural bat erakundearentzat, baizik eta koiunturazkoa. Urtebeteko eperako planteatu ziren helburuak bete dira, eta ez da beharrezkoa izan plan ekonomiko-finantzario bat prestatzea.

### V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTUAN IZANGO DUEN ERAGINA.

Aztertutako proiektioei dagokienez, aurrezpen garbi positiboa aurreikusten da, eta, beraz, etorkizunean finantzatu beharreko gastuaren bat baldin badago, erakundeak sortutako diru-sarrera arruntekin egin ahal izango zaio aurre. Halaber, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzari begira zehaztutakoa baino txikiagoa da, eta, beraz, datuen adierazten dute erakundearen etorkizuneko finantza-jasangarritasuna ez dagoela arriskuan.

Gainera, kontuan hartu behar da proposatutako aldaketek ez dutela gastua areagotuko etorkizuneko ekitalditan.

Txosten hau kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.

Osoko bilkuraren akta, txosten honekin eta euskarri bezala erabili daitezkeen beste dokumentuekin batera, Toki Erakundeez arduratzen den Arabako Foru Aldundiko Sail eskudunari igorriko zaio, zeinak, 30 eguneko epean, beharrezkotzat jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango duen, eta, horrekin batera, neurri osagarriak hartu ahal izango ditu, besteak beste, plan ekonomiko-finantzario bat prestatzea, erakundearen finantza-jasangarritasuna bermatzeko.

Arespalditzan.-**IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.**- Sin.- Carmen Rojo Pitillas."

Udalbatzak irakurritzat jo du 2018ko abenduaren 14ko kontu-hartzaitza txostena, aurrekontu-oreka ez betetzeari, diruzaintza-geldikinareen erabilerari eta kreditu gehigarriari buruzkoa.

**13<sup>o</sup>.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.** Jarraian, Udalbatzari 2018/559 eta 2018/593 arteko (biak barne) Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, honako xede honekin:

2018/559.-**ALKATETZA DEKRETUA** - P.P.Balgorza, SA. Padura kaleko hiri-mugikortasuna hobetzeko obren 3. ziurtagiria onartu eta ordaintzea.

2018/560.- **ALKATETZA DEKRETUA** - Etxaurren Ikastola. Gurasoen elkarte. Talde psikopedagogikoaren eta bi urteko gelako laguntzailearen urriko nominak ordaintzea.

2018/561.- **ALKATETZA DEKRETUA** -Amurrioko Jabetza Erregistroa.- 2018ko azaroaren 26ko txosten teknikoan zehaztutakoa onartzea.

2018/562.- **ALKATETZA DEKRETUA** - J.A.O.- Obretako udal-lizentzia ematea etxebizitzaren fatxada margotzeko eta leihoak bernizatzeke.

2018/563.- **ALKATETZA DEKRETUA** - M.B.A.- Obretako udal-lizentzia ematea etxebizitzaren lurzorua hormigoitzeko eta hondakinak kentzeko.

2018/564.- **ALKATETZA DEKRETUA** - Iparnature, S.L.- Kexaako Turismo Bulegoko arreta-zerbitzurako kontratua esleitzea.

2018/565.- **ALKATETZA DEKRETUA** - Apartamentos Turísticos Llanteno, S.C.- Dokumentu gehiago aurkezteko eskatu zaio Erretesen kokatutako lurzatiko hirigintza-obren udal-lizentziari begira.

2018/566.- ALKATETZA DEKRETUA - Construcciones Menoyo Gochi, faktura eta ordainketa-agindua onartzea.

2018/567.- ALKATETZA DEKRETUA - 2018ko azaroko nominen hileroko txostena onartzea.

2018/568.- ALKATETZA DEKRETUA - Ordainketa-kredituak gaitzearen inguruko espedientea onartzea.

2018/569.- ALKATETZA DEKRETUA - Igerilekuetan estalkia ipintzeko proiektua prestatzeko zerbitzuaren kontratua esleitzea.

2018/570.- ALKATETZA DEKRETUA - Kirolgest.SL, bankuko abal moduan gordailututako behin betiko bermea aldatzeko baimena.

2018/571.- ALKATETZA DEKRETUA - Fakturen zerrenda (F/2018/17) onartzea.

2018/572.- ALKATETZA DEKRETUA - Gizarte Segurantza. Kotizazioen ekarpena, 2018ko urria.

2018/573.- ALKATETZA DEKRETUA - Etxegoiengo Administrazio Batzarra.- Venta Trigueros II bidea konpontzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

2018/574.- ALKATETZA DEKRETUA - Menoioko Administrazio Batzarra.- Dokumentu gehiago aurkezteko eskatu da obren udal-lizentziaren espedienteari begira.

2018/575.- ALKATETZA DEKRETUA - J.A.S.G.- Etxebizitza okupatzeko udal-lizentzia ematea, behin bertako obrak amaituta.

2018/576.- ALKATETZA DEKRETUA - J.A.S.G.- Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa dela eta ordaindutako fidantza itzultzea.

2018/577.- ALKATETZA DEKRETUA - Udalbatzako kideei dagokien ekarpen ekonomikoa egitea, 2018ko azaroa.

2018/578.- ALKATETZA DEKRETUA - Alderdi politikoei dagokien ekarpen ekonomikoa egitea, 2018ko azaroa.

2018/579.- ALKATETZA DEKRETUA - Agiñagako Administrazio Batzarra.- Obretako udal-lizentzia ematea elizaren sarrera konpontzeko.

2018/580.- ALKATETZA DEKRETUA - Amurrioko Jabetza Erregistroa eta B.S.O.- Eraikinen hirigintza-egoera eta hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea zabaltzea.

2018/581.- ALKATETZA DEKRETUA - M.A.I.I.- Obretako udal-lizentzia ematea Izoriako etxebizitza eraberritzeko.

2018/582.- ALKATETZA DEKRETUA - Kreditu-transferentziaren inguruko espedientea onartzea.

2018/584.- ALKATETZA DEKRETUA - Luxoko Administrazio Batzarra.- Obretako udal-lizentzia ematea argiztapen publikoko argiak ordezkatzeko.

2018/585.- ALKATETZA DEKRETUA - P.P. Balgorza, SA.- Padura kaleko hiri-mugikortasuna hobetzeko obren 4. ziurtagiria onartu eta ordaintzea.

2018/586.- ALKATETZA DEKRETUA - Soxoko Administrazio Batzarra.- Obretako udal-lizentzia ematea bolatokia eraberritzeko.

2018/587.- ALKATETZA DEKRETUA - J.L.A.- Obretako udal-lizentzia ematea Olabezargo lurzatiaren sarreran hesi bat jartzeko.

2018/588.- ALKATETZA DEKRETUA - Erregistratutako fakturen zerrenda (F/2018/18) onartzea.

2018/589.- ALKATETZA DEKRETUA - N.M.G.P.- Dokumentu gehiago eskatu zaizkio obren udal-lizentziaren espedienteari begira.

2018/590.- ALKATETZA DEKRETUA - Elkarkidetza Pentsioak. Fakturak onartzea, 2018ko azaroa.

2018/591.- ALKATETZA DEKRETUA - Iruñalan, S.L.- eskatutako fitxategi-informazioa eskuratzeko baimena.

2018/592.- ALKATETZA DEKRETUA - N.M.G.P.- Txabolako estalkia eraberritzeko obretako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeagatik ordaindutako fidantza itzultzeko eskaera.

2018/593.- ALKATETZA DEKRETUA - Obra txikiak egiteko 2019ko programari dagozkion diru-sarreraren eskaera.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) hartu du hitza, eta 2018/564 Alkatetzaren Dekretuaren (Iparnature, S.L.- Kexaako Turismo Bulegoko arreta-zerbitzurako kontratua esleitzea) inguruan galdetu du eta hemendik aurrera beraien esku egongo den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio lehen fakturaren zati bat Kuadrillak ordaintzen zuela. Horrez gain, adierazi du urtarrilean zerbitzua esleitzeko kontratua lehiaketara aterako dela, eta, kudeaketa erregularizatzen denean, Basque Tourri eskatuko zaiola turismo-bulegoa bere gain hartzeko, zerbitzua kudeatzeko esleitzen diren diru-laguntzei begira. Azkenik, gehitu du azken hori azertu egin beharko dutela, Basque Tourrek baldintza zehatzak eskatzen baititu bulegoetarako (besteak beste, irekiera-ordutegiak), eta azertu behar da ea merezi duen.

Lauren Uria Peña zinegotzi jaunak (EH-BILDU) galdetu du ea orain gai diren bisitariei gune guztia erakusteko, lehen ezin baitzen hori egin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio jabetza Ordenaren esku dagoela eta bisitarien harrera aita H.-ri dagokiola. Beraz, Turismo Bulegoak hura baino eduki gehiago izan dezan lortu nahi da. Gehitu du Foru Aldundiarekin negoziatuko dutela haiei dagokien zatia bisitatu ahal izateko. Azpimarratu du museoa, museoaren atzean dagoena, eta ziega berriak Foru Aldundiarenak direla, eta kantzilerraren hilobia, kapera, ziega zaharrak eta lorategiak, berriz, Ordenarenak. Beraz, gune osoa bisitatu ahal izateko Ordenarekin eta Foru Aldundiarekin negoziatu behar da.

#### **8º.- Galde-eskeak.**

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) Foru Aldundiekiko bileren inguruan galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Pedrok ez duela datarik finkatu oraindik. Hala ere, adierazi beste urteetako dokumentazioa berrikusi duela, eta eskaerak urtarrilean aurkeztu ohi direla; aurten beraz, gauza bera egingo da.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du bere ustez ganaduzaleei jakinarazi behar zaiela hitzarmena dagoeneko ez dagoela indarrean, unea ez baliatzeko eta zigorrak saihesteko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) nabarmendu du Administrazio Batzarrekin biltzeko asmoa zeukatela Osasun Plana aurkezteko, baina bilera hori jaiak eta gero antolatzea erabaki da.

Ez zirenez gai gehiago jorratu, alkate-presidenteak saio amaitutzat eman zuen 19:20ean, eta, jorratutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko, nik, idazkari naizenez gero, fede ematen dut, Arespalditzan, 2018ko azaroaren 29an.

ONTZAT EMATEN DUTE:  
ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,

Sinatu du: Gentza Alamillo Udaeta.

Sinatu du: M<sup>a</sup> Carmen Rojo Pitillas.